



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Retour des cendres, Napoleonon hileta luzea

Longwood, Santa Helena uhartea, 1821eko apirilaren 16an. Erbestealdian zela eta hil baino bizpahiru aste lehenago, Napoleon Bonapartek azken nahia erantsi zion bere testamentuari: Parisen ehortzi zezaten nahi zuen, "Sena ibaiaren ertzean, hainbeste maitatu dudan frantziar herriaren erdian". Baina Santa Helenan bertan ehortzi zuten. Ia 20 urte igaroko ziren haren gorpuzkiak Frantziara itzuli baino lehen eta, beste hainbeste, gaur egun dagoen hilobian sartu arte. *Retour des cendres* esango zioten prozesu luzeari, errautsen itzulera.

Hil eta berehala hasi zen indartzen frantziar herritarren artean Napoleoneko mitoa, baita haren gorpuzkiak Frantziara eramateko eskaerak eta ahaleginak ere. Azkenean, 1840ko maiatzean, Frantziako diputatuaren ganbarak arrastoak ekartzearen alde bozkatu zuen, nahiz eta hamar urte lehenago luzatutako proposamenari diputatu gehienek ezezkoa eman. Luis Filipe I.a erregea bat zetorren gobernuaren erabakiarekin; Uztaileko Monarkiaren egoera ahula zen atzerrian nahiz etxe barruan, eta Napoleonek itzulerak bere posizioa indartu eta errebolta giroa itzaliko zuelakoan zegoen.

Espedizioa uztailean abiatu zen Santa Helenara, Joinvilleko printzea, erregearen seme gazteena, buru zuela. Aitak etekin politikoa lortu nahi zuen, baina semeak turismoa egiteko baliatu zuen bidaia. Besteak beste, Cadizen, Madeiran eta Tenerifen geldialdiak egin zituzten, xahutzen ari ziren dirutza gogoan hartu



JACQUES GUIAUD

Duela 200 urte hil zen arren, Napoleon Bonaparteren hileta ofiziala 1840ko abenduaren 15ean izan zen, hau da, ia 20 urte geroago.

gabe. 93 egun behar izan zituzten uhartera iristeko.

Napoleoneko gorpuzkiak urriaren 14an atera zituzten bere lehen hilobitik eta lau egun geroago abiatu ziren ontziak. Itzulerako bidaia askoz laburragoa –eta merkeagoa– izan zen, 13 eguneko, Ingalaterrarekin gatazka pizteko arriskuak akuilatuta. Frantzia barruan egoera ez zen lasaiagoa, eta iraultza giroa hedatzen ari zenez, gobernuak erabaki zuen Napoleoneko hiletaren prestatze lanak bizkortzea eta data abenduaren 15ean jartzea. Liskarrak saihesteko, zeremonia militarra egin zuten, eta ez zibila. Hau da, herritarrek ezin izan zuten Napoleonek segizio ikusgarrian parte hartu. Eta, hala, Luis Filipek ez zuen bere asmoa lortu; alderantziz, erabaki horrek

monarkiaren irudia okertzea besterik ez zuen eragin.

Napoleon Les Invalides-en ehortzi zuten, bigarren, 1840ko abenduaren 15 hartan, baina haren hilobia, Louis Viscontiren obra, bukatu gabe zegoen eta Saint-Jérôme kaperan sartu zuten. Monumentua amaitzeko epea beste bi hamarkadaz luzatu zen, eta aurrekontua ikaragarri gizondu; soilik sarkofagoa egiteko harriengatik 200.000 libera ordaindu zituen estatuak. 1861eko apirilaren 2an, zeremonia pribatu batean, ehortzi zuten Napoleon Bonaparte hirugarrenez eta azkenekoz.

Azkenean, *retour des cendres* delakoak ez zion inori etekin politikorik ekarri eta zulo sakonak hondeatu zituen altxortegian. ●



GÉRARD BILOT

Napoleon ez zen sekula Waterloon egon

1815eko ekainean, Napoleonek azken eta behin betiko porrot militarra izan zuen Waterlooko guduan. Baina Napoleonek ez zituen sekula udalerrira hartako lurrak zapaldu. Gudu-zelaian egon zen, jakina, baina gudua ez zen Waterlooko lurretan gertatu, handik kilometro gutxira baizik. Braine-l'Alleud eta

Plancenoit udalerrien artean dagoen Mont-Saint-Jean herrixkan izan zen gudua. Horregatik, hasieran, frantziarrek Mont-Saint-Jean-eko gudua esan zioten Napoleoneko porrotari. Baina, irabazleak, Wellingtono dukeak, Waterloon egin zuen gudua txostena eta, azkenean, ospea udalerrira horrentzat izan zen. ●